

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

456

59/2023 EBAZPENA, urtarilaren 4koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, honako ebazpen honen hutsak zuzentzekoa: 1474/2021 Ebazpena, azaroaren 25ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen diren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri espezifikoak Fakultatibo Medikoa eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (Familia Medikua lanpostu funtzionala), Osakidetzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1474/2021 Ebazpenaren bidez onartzen dira estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri espezifikoak Fakultatibo Medikoa eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (Familia Medikua lanpostu funtzionala), Osakidetzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuko 18.2.c) artikuluan ezartzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Horrelako akats bat atzeman da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2021eko abenduaren 14an argitaratutako ebazpenean, eta zuzendu egiten da II. eranskinean,

honakoa esaten den lekuan:

«III. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA FAKULTATIBO MEDIKOAK ETA TEKNIKOAK LANBIDE-TALDEKO MEDIKUA KATEGORIAN (FAMILIA MEDIKUA LANPOSTU FUNTZIONALA), OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU SANITARIOETAKO ERAKUNDEETAKO DESTINOETARAKO

2) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa (gehienez, 20 puntu).

c) Prestakuntza espezializatua:

1.– Egoiliarren prestakuntza-aldi osoa Familia eta Komunitate Medikuntzako espezialitatean bete duten goi-mailako tituludunak: 10 puntu.

2.– Egoiliarren prestakuntza-aldi osoa Familia eta Komunitate Medikuntzako espezialitateko graduondokoa dutenentzako irakaskuntza-programa aitortua duen atzerriko zentro batean bete duten goi-mailako tituludunak, titulua Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak baliokidetuta badu: 10 puntu».

honakoa esan behar du:

«III. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA FAKULTATIBO MEDIKOAK ETA TEKNIKOAK LANBI-DE-TALDEKO MEDIKUA KATEGORIAN (FAMILIA MEDIKUA LANPOSTU FUNTZIONALA), OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU SANITARIOETAKO ERAKUNDEE-TAKO DESTINOETARAKO

2) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa (gehienez, 20 puntu).

c) Prestakuntza espezializatua:

1.– Egoiliarren prestakuntza-aldi osoa Familia eta Komunitate Medikuntzako espezialitatean bete duten goi-mailako tituludunak: 20 puntu.

2.– Egoiliarren prestakuntza-aldi osoa Familia eta Komunitate Medikuntzako espezialitateko graduondokoa dutenentzako irakaskuntza-programa aitortua duen atzerriko zentro batean bete duten goi-mailako tituludunak, titulua Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak baliokidetuta badu: 20 puntu».

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarilaren 4ko 59/2023 Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarilaren 4a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.